

Dena kobratu eta inoiz baino garestiago, gainera

FINANTZEN KRISIAK ERAGINDA, BANKUEK ETA AURREZKI KUTXEK DIRU GUTXIAGO IRABAZTEN DUTE ETA BERAZ, KOMISIO GEHIAGO KOBRAZTEN HASI DIRA, AURREZKI KONTUAK EDO KREDITU TXARTELAK IZATEAGATIK, BEREZIKI

Dena kobratzen digute bankuek. Zenbat aldatu diren kontuak 2005 edo 2007tik hona! Orduan "komisiorik ez" izeneko hainbat eta hainbat iragarki entzuten genituen, eta erabiltzailek ez genuen ordaindu behar ez aurrezki kontua izateagatik, ez kreditu txartelak erabili edo diru aldaketak egiteagatik. Banku guztiak ari ziren bezero bila eta zorioneko moda etorri zen, komisioak kentzearena. Soldata helbideratzeagatik edo ordaindu beharreko gastuak bankuaren bidez ordaintzeagatik, bankuak 'barkatu' egiten zigun komisioa. Bazirudien beti hala izango zela baina etorri da krisia eta aldatu da joera. Kontrakoa gertatzen da orain, komisioak igo dira eta kobratu egiten da, ahal den guztia. Arrazoia, esandakoa: ekonomia loratzen denean, bezeroak bilatu nahi dira eta nahi dutena eskaintzen zaie konpententziak baino erakargarriago izateko. Baina ekonomiaren suspertze egunak bukatu dira, momentuz, eta bankuen finantza-etekinak jeisten hasi direnez, beste lekuren batetik atera behar dute etekina. Banku askok erabaki dute komisioak garestitzea eta era guztietakoak, gainera: kontu korrontea izateagatik ordaindu behar da, transferentzia egiteagatik, txekak kobratu, tarjetak izan, kredituak eskatu... denak du prezioa. Komisioak eurak ere igo egin dira gainera. Eta oraindik "komisiorik ez" politikaren onurak gozatzen dituzten bezeroek (banku erabiltzaileen %15ak, gutxi gora behera), badakite beste leku batetik ari direla

ordaintzen: pentsio planak, inbertsio funtsak, Bursak balore edo hipotekak. Bezeroek ordaindu egiten dutela, alegia, eta lepotik, gainera: garesti.

2007an, Espainiako bost banku handienek 15.750 milioi euro irabazi zituzten, komisioen bidez, ia aurreko urtean baino % 11 gehiago. Batzuek, % 15 gehiago ere bai. 2008an, oraindik behin-betiko daturik ez badago ere, komisioei esker bankuek diru gutxiago irabaziko dutela kalkulatu da, inbertsio funtsak, baloreak eta pentsio planak gutxiago salduko direlako. Horregatik dauden komisioak igo egin dira. Nonbaitetik atera behar dirua.

Bankuen komisio garrantzitsuenak

• Zerbitzu emateagatik:

Zerbitzu oinarri-oinarrizkoak kobratzen dira, denok erabiltzen ditugunak. Esate baterako, kontu korrontea izateagatik ordaindu behar da, txekak eman edo kobratzeagatik edo dirua kontu batetik bestera mugitzeagatik. "Komisiorik ez" edo antzeko abantailak dituzten erabiltzaileek ez ezezik, beste guztiei ordaintzea egokituko zaie.

• Kontu korrontea izateagatik:

Urtean 20 euro kostatzen da, batez beste, kontu korrontea izatea baina 42 euro ere izan litezke. 9 euro edo gutxiago kobratzen dizkieten, zorioneko da, horixe baita merkatuko prezio baxuena. Aurten % 7 igo da, batez beste, kontu korrontea izateagatik ordaindu beharreko komisioa



eta momentu honetan, hobe da Internet bidezko kontua eskatzea, orduan ez baita komisiorik kobratzen.

• Transferentziak egiteagatik:

Gero eta garestiago ateratzen da dirua lekutik mugitzea. 2006an Espainiako Bankuak baimena eman zien bankuei dirua bidaltzen duenari zein jasotzen duenari komisioa kobratzeko. Momentuz jasotzen duenari debalde ateratzen zaio baina gauden momentuz esan behar da, gauden egoeran, beharbada laster aldatuko baita hori ere. 2008an, banku berean 10.000 euroko diru transferentzia egiteagatik kobratzen zena % 6,3 igo zen, 3,19 eurotaraino (Espainiako Bankuaren datuak dira). Bankuek, orohar, komisio altuagoak kobratzen dituzte diru gutxiago mugitzen bada. % 0,05 merkeena eta % 0,40 garestiena. Hau da, 2,50 euro gutxienez y, 6 euro gehienez.

• Txartelak erabiltzeagatik:

Hemen lortzen dute bankuek etekin handiena eta hementxe ikusi dugu azken hilabeteotan igoerarik altuena. Beste banku baten kutxazainetik geure bankuaren sarean (Servired, Euro 6000 edo 4B) dirua ateratzea iaz 0,71 euro kostatzen zitzaigun, ia 2007ko abenduan kostatzen zena baino % 18 gehiago. Dirua beste sare bateko kutxazainetik ateraz gero 2,65 euro ordaindu beharko ditugu, 2007aren bukaeran ordaintzen genuena baino % 2,32 gehiago. Beti ere, 300

euorekin egindako kalkuluak dira. Hala ere, atal honetan ere banku bakoitzak komisio desberdinak ordaintzen ditu ateratako diruaren arabera. Debitu txartelen kasuan, gehienez sare berera bagoaz diruaren % 2a ordainduko dugu eta kreditu txartela badaukagu % 2 edo % 4, asko jota. Legezko prezioak, beti ere, baina oso altuak. On-line bankuetako bezeroek, bestalde, lehen debalde ateratzen zuten txartelarekin dirua beraien bankuaren sarea erabiltzen zutenean baina bezero horiei ere bukatu zaie eskaintako abantaila hori eta momentu honetan bankuaren komisioak ordaindu behar dute.

• Dirua zorretan izateagatik:

Inork ez ditu ikusi nahi baina batzuetan agertu egiten dira zenbaki gorriak kontu korrontean. Kasu horretan, komisioa kobratzen zaigu eta, hemen ere, iazkoa baino garestiagoa. Batez beste 10,05 euro kobratzen dira une honetan zenbaki gorriak daudenean, 2007an baino % 23 gehiago. Pentsa. Horrez gain, dirua zorretan izateagatik, "zuloa egiteagatik", alegia, batez beste 28,91 euro kobratzen dira eta duela urte bete eskas 26,81 euro ziren: beraz, % 7,83 igo da zuloaren prezioa. Halako egoerak arautzen dituen 7/1995 Legea, Martxoaren 23koak, zera dio: ezingo dela kobratu dirua zorretan izateagatik diruak duen legezko interesaren tasa baino 2,5 gehiago (% 5,5 da une honetan diruaren legezko interesa).

Inbertsioak egiteagatik kobratzen dena

• Inbertsio funtsak eta pentsioak:

Bankuak nahi dituzten komisioak kobratzeko inbertsio produktuen trukean. Hala ere, Balio Merkatuaren Espainiako Batzorde Nazionalak –inbertsio funtsen kasuan- eta Pentsioen eta Aseguruen Zuzendaritza Nagusiak –pentsioen kasuan-, gehienezko komisioak ezartzen dituzte. Funtsak kudeatzeagatik kobratzen den komisioa ezin da % 2,25 baino altuagoa izan eta diru gordailuen kasuan % 0,2tik ezin da igo. Komisioak inbertsio funtsen arauetan argi zehaztuta etorri behar dira. Igoera zein jeitsierak egiteko bankuak Balio Merkatuaren Espainiako Batzorde Nazionalari eskatu behar dio baimena. Eta funts horretan inbertsioa duten akziodunek ez badute aldaketa hori begi onez ez ikusten hilabete dute funtsa inolako zigorrik gabe uzteko. Paradoxikoa dirudien arren, askok jeisten dituzte beraien komisioen prezioak aurrezkiak dituztenentzat erakargarriago izateko. Merkatuen jeitsierak errentagarritasunik gabe utzi ditu hainbat eta hainbat funts, errenta aldakorrek dabilzanak bereziki, horiek balioaren % 40 galdu zuten 2008an. Errenta finkoko funtsak, aldiz, % 2 baino ez zuten eman iaz irabazitan. Beraz, % 2,5eko komisioa ordaintzen bada, agur errentagarritasunari. Bezero askok nahiago izango dute inbertsiorik ez >



2007AN ESPAINIAKO BOST BANKU NAGUSIEK
15.750 MILIOI EURO IRABAZI ZITUZTEN
KOMISIOEI ESKER, 2006AN BAINO % 11 GEHIAGO

egin. Horregatik, hainbat banku hasi dira "arrakastaren komisioa" deitu dutena aplikatzen: etekinak ematen badizkiote berezoari, orduan baino ez diote komisioa kobratzen. Pentsio planen kasuan, komisioa ezin da % 2,5 baino altuagoa izan. Banku askotan, ostera, hortxe-hortxe dabilta, kobratu dezaketen guztia kobratzen eta Europako Batzordea inbertsioa sustatzeko asmoarekin, malgutasuna izan dezaten eskatu diete.

• Burtsa:

Burtsan aritzeagatik kobratzen diren komisioak asko aldatzen dira bankuz banku. 12.000 euro baino gutxiago inbertitzen badira, diruaren % 0,25 kobratu ohi da komisio gisa gutxienez eta % 3 gehienez (inbertitu den diruaren proportzioaz ari gara, beti ere). Internet bidez egin bada diru mugimendua, normalean komisioak bajuagoak izaten dira. Are gehiago, banku batzuek komisiorik ez dute kobratzen, aldi batez, behintzat. Baina beti ordaindu behar izaten da "burtsa kanona" deiturikoa. Gaur egun, 300 euroko inbertsioa egiten bada, burtsak 1,1 euro kobratzen ditu. 300 eta 3.000 euro artean inbertitzen badira, 2,45 euro kobratzen dira, gehi inbertitu den diruaren % 0,024. 3.000 eta 35.000 euro artean inbertituaz gero, berriz, komisioa 4,65 eurokoa litzateke eta horrez gain, jarritako diruaren % 0,012 ordaindu beharko genuke.//

ZER EGIN KOMISIOAK gehiegizkoak direnean

Bankuarekin negoziatu. Egia da banku eta aurrezki kutxek irabaziak lortu nahi dituztela komisioekin baina gure bulegoko zuzendariarekin hitz egiten badugu, malguak izan daitezke kobratzeko orduan. Bertatik bertara ezagutzen badira bankuko langileak errazago izaten da prezio hobeak lortzea. Bestela, nekez.

On-line bankuak. Kreditu txartelekin komisioak ordaintzen badira ere, on-line bankuekin momentuz, ez horrenbeste. Beraien finantza egitura dela eta, komisio asko eta asko ez dituzte kobratzen. Komeniko zaizu, beharbada, informazioa bilatzea.

Salaketa jarri zure bankuan. Gehiegizko komisioak beti salatu daitezke bankuan bertan eta beharrezkoa balitz Espainiako Bankuan ere bai (Erreklamazio Zerbitzua. Espainiako Bankua. K/ Alkala, 48. 28014 Madril. Telefonoa: 91 338 65 30). Hala ere, kontuan izan behar da, komisioak garestiak izanik ere, ez direla, normalean, legez kontrakoak izaten. ■

